



IRAKASLEEN EBALUAKETAREN EMAITZAK

**2014-2015EKO HASIERAKO GALDEKIZUNEN ETA
2016-2017KO BUKAERAKO GALDEKIZUNEN ARTEKO ALDERAKETA**

(Eskoriatza)

Galtzagorri Elkarte
2017ko urria



AURKIBIDEA

	Orria
1. SARRERA	2
2. BUKAERAKO GALDEKIZUNAREN HELBURUA	2
3. METODOLOGIA	3
4. EMAITZA KUANTITATIBOAK ETA ONDORIOAK	4
5. IRAKURKETAREKIKO JARRERAK	
5.1. Irakaslearen irakurzaletasun maila	5
6. HAUR LITERATURAKO BALIABIDEEI BURUZKO EZAGUERA	6
7. HAUR LITERATURAREN EZARPEN SISTEMATIKOA	7
ESKOLAREN CURRICULUMEAN	
7.1. Jarduera literarioak egitea	7
7.2. Jarduera literario mota	8
8. IPUINA KONTATZEKO ESTRATEGIAK	9
9. JARDUERA LITERARIOAN INGURUKO BALDINTZEN KONTROLA	10
10. ESKOLAKO HAUR LITERATURA BALIABIDE MOTA	11
11. HAUR LITERATURARI BURUZKO FORMAZIOA ETA	
INFORMAZIOAREN HOBEKUNTZA	12
12. HARREMANAK UDAL LIBURUTEGIAREKIN	
11.1. Liburutegira joatea (maiztasuna)	13
13. ALDERAKETAREN LABURPENA	14

1. SARRERA

- Txosten honetan Eskoriatzako irakasleen bukaerako galdekizunen emaitzak aurkezten dira.
- Ebaluazioa 2014-2015. ikasturtetik 2016-2017. ikasturtera egitasmoan parte hartu duten 6 urteko haurren irakasleei egin zaie.
- Ebaluazioa 2016-2017. ikasturteko hirugarren hiruhilekoan egin da.
- Galdekizunak, Eskoriatzako 2 ikastetxeen 6 urteko haurren irakasleei banatu zaizkie. Guztira, **12 irakaslek** erantzun dute.

2. BUKAERAKO GALDEKIZUNAREN HELBURUAK

- Bularretik Mintzora egitasmoaren ekimenen eragin kuantitatiboa eta kualitatiboa aztertu. Hau da, egitasmoa abian jarri zenetik, zer nolako aldaketak eman diren, irakasleen iritziz, haurren irakurketa ohituretan, eskolaren esparruan.
- Haur Literaturaren zaletasun maila aldatu ote den aztertu
- Haur Literaturako baliabideei buruz irakasleek lortu duten ezaguera maila aztertu
- Irakasleen irakurzaletasuna finkatzeko erabiltzen dituen ohiturak eta estrategiak baloratu
- Haur Literaturako baliabideei dagokionez, eskolan eman diren aldaketak aztertu
- Ikastetxeko irakasleen eta Udal Liburutegiaren arteko harremanen maiztasuna aztertu

3. METODOLOGIA

- Bukaerako egoera ebaluatzeko, irakasleei galdekizun bat pasa zaie. Honetan, 8 aldagai orokor kontutan hartu dira:

1. Irakurketarekiko jarrerak

- Irakaslearen irakurzaletasun maila

2. Haur Literaturako baliabideei buruzko ezaguera

3. Haur Literaturaren ezarpen sistematikoa eskolaren curriculumean

- Jarduera literario mota

4. Ipuina kontatzeko estrategiak

5. Jarduera literarioan inguruko baldintzen kontrola

6. Eskolako Haur Literatura baliabide mota

7. Haur Literaturari buruzko formazioa eta informazioaren hobekuntza

8. Harremanak Udal Liburutegiarekin


- Liburutegira joatea (maiztasuna)
- Bukaerako galdekizunak, guztira, 9 galdera ditu.
- Galdekizunak 2 ikastetxeetan banatu dira, instrukzio orriarekin batera. Epe bat eman ondoren jaso dira, datuak bildu eta estatistikoki tratatuak izateko. Txosten honetan azaltzen diren bukaerako emaitzak, 2016-2017. ikasturteko hirugarren hiruhilekoan lortu dira eta 2014-2015. ikasturtean jasotako hasierako emaitzekin konparatu dira.



4. EMAITZA KUANTITATIBOAK ETA ONDORIOAK


5. IRAKURKETAREKIKO JARRERAK

5.1. Irakaslearen irakurzaletasun maila



Orain irakasle gutxiago dago Haur Literatura “asko” atsegin duena
(% 10 gutxiago)

6. HAUR LITERATURAKO BALIABIDEI BURUZKO EZAGUERA




% 25ak dio HL-ko baliabideei buruzko informazio *nahikoa* duela eta beste **%75ak** asko hobetu dela Bularretik Mintzora egitasmoari esker

Aldagai honek aldakortasun baikorra izan du. Orain, irakasleen HL-ko baliabideen ezagutza maila asko hobetu da.

Ondorioa: *Emaitza honek erakusten duenez, irakasleek informazio gehiago dute BM egitasmoaren eraginez. Ebaluatuak izan diren eskoletan HL-ko baliabideak banatu eta ezagutarazi dira eta irakasleei informazio hori pixkanaka iristen ari zaie.*

7. HAUR LITERATURAREN EZARPEN SISTEMATIKOA ESKOLAREN CURRÍCULUMEAN

7.1. Jarduera literarioak egitea




Orain, **% 83ak** eskolan jarduera literarioak egiten ditu, lehen baino **%3 gehiagok**

Aldagai honen aldakortasuna, modu txiki batean bada ere, baikorra izan da. Orain, ia irakasle guztiek aitortzen dute jarduera literarioak sistematikoki egiten dituztela, hasieran baino %3 gehiagok hain zuzen ere.

Ondorioa: *Eraitza honek adierazten du egitasmoak duen helburu garrantzitsuenetako bat lortzen ari garela: hau da, eskolaren curriculumean, Haur Literaturaren erabilera sistematikoki ezartzea, alegia.*

7.2. Jarduera literario mota




Orokorrean, jarduera literario mota gehienak maiztasun gehiagorekin egiten dituzte orain sistematikoki eskoletan

Orain, ia jarduera mota guztiak maiztasun gehiagorekin egiten dituzte irakasleek eskolan. Hobetu diren jarduerak honako hauek dira: *“Haur poesia errezitatu”*, % 44 *gehiago*; *“ipuina ahoz kontatu irudirik erabili gabe”*, %24 *gehiago* eta *“errima jokoak egin”*, % 16 *gehiago*.

Aldiz, bada jarduera bat orain maiztasun gutxiagorekin egiten dutena: *“Ipuinaren irudiak erakutsi eta azaldu”*, % 10 *gutxiago*. Hala ere, jarduera mota hau oraindik ere maiztasun handiarekin egiten da.

Ondorioa: *Aldagai honen hazkundera oso baikorra izan dela esan daiteke. Irakasleen formazioan eman diren aholkuak eta egin diren ekintzak erantzun baikorra izan baitute. Eskolaren curriculumean sistematikoki ezarri diren jarduerak, gehienbat, ahozkotasunarekin zerikusia duten jarduerak dira.*

8. IPUINAK KONTATZEKO ESTRATEGIAK



Orain liburua erakutsi gabe ipuina ozenki irakurtzen dutenak

% 52 gehiago dira.

Orain estrategia anitzak erabiltzen dituzte maiztasun gehiagorekin

Ipuina kontatzeko estrategiari dagokionez, aukeran ematen ziren bost estrategietatik, lautan izan dute alderaketa; horietatik, *“ipuina ozenki irakurri liburua erakutsi gabe”* nabarmenena izan da, **%52 gehiago** dira orain estrategia hau erabiltzen duten irakasleak.


Orain denek “ipuinaren irudiak komentatu eta erakusten dituzte” eta “keinuak erabiltzen dituzte”.

Aldiz, ez dago inor “inolako euskarririk gabe” ozenki kontatzen duena, lehen bezala.

Ondorioa: *Aldagai honen alderaketa, bi zentzutan baloratu dezakegu. Orain, oro har, irakasleek liburuaren testuari garrantzia ematen diote. Zentzu honetan, aldaketa hau positibotzat har dezakegu, ahozkotasanaren alde dagoelako.*

*Hala ere, aurrerapauso hori, **ahozkotasun hutsaren** “aurka” doa. Hau da, oraindik irakasleek “euskarririk” baten beharra dute ipuina boz gora kontatzeko, agian, ez direlako ausartzen beraiek bakarrik ipuina **kontatzen** edo/eta ahoz kontatzeko trebetasunak ez dituztelako garatuak oraindik.*

9. JARDUERA LITERARIOAN INGURUKO BALDINTZEN KONTROLA




Ipuina kontatzerakoan, inguruko hiru baldintzak gehiago kontrolatzen dituzte orain

Orain irakasleek, ipuina kontatzerakoan, inguruko baldintzen kontrolari garrantzi handiagoa ematen diote; **%9 gehiago dira** "isiltasuna egotea" kontrolatzen dutenak, "arreta erabatekoa izatea" **%10 gehiagok** eta beraiek "erlaxatua eta motibatua egotea" kontrolatzen dute **% 4 gehiagok**.

Ondorioa: *Datu horiek adierazten dute, orain irakasleek kontakizunaren kalitatea gehiago zaintzen dutela, momentu garrantzitsua dela uste dutelako, ongi kontatu nahi dutelako. Horrez gain, ipuina kontatzerakoan, Bularretik Mintzoran eskaini diren formazioetan eman diren zenbait gomendiok eragina izan dutela ondorioztatu daiteke.*

10. ESKOLAKO HAUR LITERATURA BALIABIDE MOTA



Bukaerako ebaluazioaren emaitzen arabera, Haur Literatura baliabide ugarienak, orain ere, “*egungo ipuinak*” eta “*irudidun albumak*” dira.


Gehien ugaritu diren baliabideak, ordea, “*aho korapiloak*” (% 19 *gehiago*) eta, bereziki, “*haur poesia*” (% 23 *gehiago*) izan dira.

Aldiz, gutxiagotu diren baliabideak hauek dira: “*Bideoak eta DVDak*” (% 12 *gutxiago*) eta “*ipuin tradizionalak*” (%8 *gutxiago*).

Ondorioak: *Egitasmoaren helburuetariko bat, Haur Literaturako baliabideak ezagutaraztea eta eskola baliabidez hornitzea da. Helburu hau betetzen ari da.*

Zentzu honetan, eskoletan ahozkitasunarekin zerikusia duten baliabideen hazkundera -aho korapiloak, hitz jokoak eta haur poesia hain zuzen ere- oso baikorra da eta “teknologia berriekin” lotura dutenen jaitsierarekin bat dator.

11. HAUR LITERATURARI BURUZKO FORMAZIOA ETA INFORMAZIOAREN HOBEKUNTZA




Irakasle gehienek diote *nahikoa* hobetu dela Haur Literaturari buruz duten formazio eta informazio maila

Irakasleen gehiengoak, % *67ak* hain zuzen ere, uste du Haur Literaturari buruz duten formazioa eta Haur Literaturaren inguruko informazio espezializatua *nahikoa* hobetu dela.

Aldiz, beste %*33ak* uste du *gutxi* hobetu dela. Ez dago inor bat ere ez dela hobetu uste duenik.

Ondorioak: *Irakasleek orain formazio eta informazio gehiago dute BM egitasmoaren eraginari esker. Formazio saioetan ezagutzera eman zaizkien Haur Literaturako baliabideak –ipuinak, poesia, haur kantak,...– eta eman zaien informazioak –Galtzagorriko web gunea, aldizkariak, liburu gomendatuen zerrendak, ... – argi dago eragin baikorra izan dutela.*

12. HARREMANAK UDAL LIBURUTEGIAREKIN



Bukaerako emaitzek diotenez, eskolen harremanak udal liburutegiarekin nabarmen ugartu dira. Zentzu honetan aldagai honen aldakortasuna oso baikorra izan da. Hau da gehien ugartu den aldagaia. Orain, **%66** dira “*astean behin edo bitan*” liburutegira joaten direnak. Lehen ez zegoen inor maiztasun honekin joaten zenik.

Datu baikor horrez gain, esan beharra dago, orain, denak joan doazela udal liburutegira. Nahiz eta maiztasun ezberdinarekin joan, lehen baino **% 63 gehiago** dira joaten direnak .

Ondorioak: *Irakurzaletasuna suspertzearen ezaugarri garrantzitsuenetariko bat liburutegiaren erabilpena da. Argi dago Bularretik Mintzora egitasmoak liburutegira erakarri dituela haur eta irakasle gehiago. Helburu hau ere betetzen ari da beraz.*

13. ALDERAKETAREN LABURPENA

Bukaerako ebaluazio honetan kontuan izan diren irakurzaletasuna definitzen duten **8 adierazleen** alderaketa, orokorrean, nahiko positiboa izan da.

Hobekuntza nabarmena izan duten aldagaiak:

- Haur Literaturako baliabideei buruzko ezaguera
- Haur Literaturaren ezarpen sistematikoa eskolaren curriculumean
- Ipuina kontatzeko estrategiak
- Jarduera literarioan inguruko baldintzen kontrola
- Eskola Haur Literatura baliabide mota
- Haur Literaturari buruzko formazioa eta informazioaren hobekuntza
- Harremanak Udal Liburutegiarekin (Liburutegira joatearen maiztasuna)

Hobekuntzarik izan ez duten aldagaiak:

- Irakurketarekiko jarrerak (irakaslearen irakurzaletasun maila)

Beraz, 8 aldagaietatik, **7tan** hobekuntza nabarmena izan da.

Ondorioa: *Ebaluatuak izan diren Eskoriatzako irakasleen artean Bularretik Mintzora egitasmoaren helburuak finkatzen ari direla esan daiteke.*

Gehien hobetu den aldagaia honakoa da: "Liburutegira joatearen maiztasuna" (orain, % 63 gehiago dira joaten direnak eta %66 gehiago astean behin edo birritan joaten direnak).

Galtzagorri Elkartea, 2017ko urria